Altzako Historia Mintegia

www.altza.net

Altza, 2013-04-24

Lagunak, agur:

Joan den urteko ekainetik hona gure elkartearen barruan prozesu bat abiatu genuen Altzan barruti bat antolatzearen inguruan. Bilera sorta bat egin ondoren idatzi bat erredaktatu, udaletxean erregistratu, komunikabideetara bidali eta udal talde politikoei aurkeztu dugu. Zuekin eta gainontzeko auzokideekin ere partekatu nahi dugu. Gutun honekin batera jaso duzue aipatutako testua.

Elkarte kulturala da gurea, gure herriaren ibilbide historikoari lotua, eta, beraz, badauka zer esanik dauka gai honetan. Alabaina, aurrera egin nahi bada behintzat, nahitaezkoa da AHMren jarrera besteenarekin bateratzea eta, horretarako, datozen hilabeteetan gainontzeko elkarteekin bilerak antolatuko ditugu auzoetan, gure iritzia aurkezteko, beste elkarteek pentsatzen dutena jasotzeko eta barrutiaren jarraipena egingo duen batzordea osatzeko. Horretarako, behean daukazuen bileren egutegia prestatu dugu.

Gaiaren jarraipena egiteko blog bat prestatu dugu (altzabarrutia.blogspot.com). Blogean bertan dokumentu sorta bat daukazue kontsultagarri.

Momentu garrantzitsua deritzogu oraingoa, deszentralizaziori eta auzokideen parte hartzeari bideak zabaltzeko aukera bat izan daitekeelako. Gure esku dago abiatuta dagoen prozesu horri bultzada bat ematea.

Bide horretan topatuko garelakoan, adiorik ez.

Amigos, amigas:

Desde junio del año pasado hemos venido realizando dentro de nuestra asociación una serie de reuniones en torno a la creación de un distrito en Altza. Hemos preparado un escrito que registramos en el Ayuntamiento, enviamos a la prensa y presentamos a los grupos municipales. También lo queremos compartir con vosotros y vosotras. Dicho texto acompaña a esta carta.

En AHM, como asociación cultural comprometida con el devenir histórico de Altza, vemos necesario aunar esfuerzos con las demás asociaciones para poder avanzar en este tema y, para ello vamos a convocar una serie de reuniones en los distintos barrios del antiguo término municipal de Altza para exponer nuestra opinión, recoger las opiniones de las demás asociaciones, y crear una comisión que haga el seguimiento al tema del distrito. Para ello hemos preparado un calendario de reuniones que podéis ver más abajo.

Hemos abierto un blog (altzabarrutia.blogspot.com). Para hacer un seguimiento del tema y consultar la documentación.

Pensamos que este es un tema importante para le futuro de nuestros barrios y una oportunidad para dar nuevos pasos a favor de la descentralización y la participación de los vecinos y vecinas.

Esperando encontrarnos en ese camino, saludos cordiales y hasta pronto.

| Bileren egutegia / Calendario de reuniones (BEHIN-BEHINEKO / PROVISIONAL) |
|---|

- Ipar Haizea Elkartea (Zarategi, 65), maiatzak 9 osteguna, 19:30
- Etxarriene Auzo Etxea (Elenategi, 2), maiatzak 15, asteazkena, 19:30
- Kontadores (San Pedro, 13), maiatzak 20, astelehena, 19:30
- Altzako udaletxea (San Martzial, 4), maiatzak 22, asteazkena, 19:30

altzabarrutia.blogspot.com

## Barruti bat Altzan

Orain dela urtebete udal batzorde bat osatu zen Donostian Altzan barruti bat antolatzeko. Denbora tarte horretan, ordea, batzordea erabat geldirik egon da eta ez du bere lana egin. Hiritar gisa eta elkarte kultural gisa behar-beharrezkoa deritzogu ahal den lasterren lanak burutzea eta Altzan barrutia antolatzea.

Lehenik eta behin, 2003. urtean "gobernu lokala modernizatzeko neurriak" jasoz onartu zen legeak hala agintzen duelako.

Badira, gainera, arrazoi historikoak ezin direla inolaz ere zokoratu: batetik, Altza udalerria izan da eta Donostiak sinatu zuen anexio aktan udalerria berriro izateko eskubidea aitortzen zaio eta, bestetik, udalerri izan ez den garaietan, Altzak beti izan du Donostiaren barruan berezko administrazioa.

Horiez gain, Altzan sortu beharreko barrutiak ezaugarri hauek izan beharko lituzke kontuan:

1. Barrutiak hiritarren partehartzea ahalbideratu beharko luke, hiritarren eta udal ordezkarien arteko harremanak erraztuz eta komunitatearen kohesioa indartuz.
2. Barrutiak deszentralizazioa suposatuko luke, aurrekontuak eta hiriaren proiektuak egiteko orduan batez ere.
3. Barrutiak auzoak artikulatu beharko lituzke, baita, ahal den neurrian, mugetan dauden beste udalerrietako auzoekin ere.
4. Barrutiak udal departamenduen arteko koordinazioa eta ekinbide bateratua erraztu beharko lituzke.

Altzako auzoen eta auzokideen interesak hobeto defenditzeko ezinbestekoa deritzogu hirian barrutien egitura indarrean jartzea lehenbailehen, kudeatzeko eta erabakitzeko ahalmena izango duena eta udal zerbitzuak kudeatzeko eskumenak eta dagozkion baliabide ekonomikoak zein materialak eta pertsonalak izango dituena. Udal-batzordeko zinegotziek honi buruz dituzten iritziak hiritarrekin konpartitu eta azalpenak eskaini behar lituzkete.

Udal ordezkari politikoei eskaera hau aintzat hartzea eta egin beharrekoak egin ditzatela eskatzen diegu eta Altzako hiritarrei zein elkarteei eskaera honekin bat egitera gonbidatzen diegu.

Altzako Historia Mintegia

www.altza.net

## Un distrito en Altza

Hace poco más de un año que el pleno municipal donostiarra aprobó la formación de una comisión para la creación de un distrito en Altza. En todo este tiempo, sin embargo, la comisión ha estado paralizada y no ha realizado su trabajo. Como vecinos y vecinas, y como asociación cultural creemos imprescindible que la comisión cumpla con su cometido y se cree dicho distrito.

De entrada, porque la ley aprobada en 2003 para “la modernización de los gobiernos locales” así lo determina.

Además hay razones de carácter histórico que no se pueden relegar: Altza ha sido municipio y la propia acta de anexión Donostia le reconoce el derecho de volver a serlo, y, en los momentos históricos que ha sido parte integrante del término donostiarra Altza siempre ha gozado de un régimen propio de administración.

Junto a los fundamentos legales e históricos mencionados creemos así mismo que la creación de un distrito en Altza debería servir para:

1. Permitir una auténtica participación ciudadana, facilitar la comunicación entre los ciudadanos y las ciudadanas con los representantes municipales además de reforzar la cohesión social entre los vecinos y vecinas.
2. Descentralizar la ciudad y la toma de decisiones, sobre todo a la hora de elaborar los presupuestos y los proyectos de la ciudad.
3. Articular los barrios de la ciudad entre sí, así como, en la medida de lo posible, con los barrios vecinos de otros municipios.
4. Facilitar la coordinación y acción conjunta entre los distintos departamentos municipales.

Pensamos que la creación del distrito debería de servir para defender mejor los intereses de los barrios de Altza y sus vecinos y vecinas, por lo que nos parece urgente organizar la ciudad en distritos con capacidad de gestionar y decidir, con sus propias competencias en la gestión de servicios y las dotaciones económicas y materiales correspondientes. Los concejales de la comisión deberían compartir sus opiniones al respecto con los vecinos y dar las explicaciones necesarias.

Pedimos a los responsables políticos que tomen en consideración esta petición y tomen las medidas precisas, e invitamos a las asociaciones y vecinos/vecinas de Altza a que se sumen a esta petición.